



### 3 EMAKUMEAK

## Ekimen bereziak Emakumearen egunean

Martxoaren 8a da Emakume Langilearen Nazioarteko eguna eta arrazoi honengatik egitarau berezia antolatu du udalak Emakumearen Zentro Zibikoarekin elkarlanean.

### 4-5 ELKARTASUNA

## “Osasuna Guztientzat” ikuskizun solidarioa

“Haren Alde” izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta, larunbatean 19:00etan musika emanaldi bat eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxean, Alboka abesbatzak, Elena Bugedo eta Joxerra San Sebastian abeslariak eta Kike Biguri Umoristak.

### 6 IGERIKETA

## Domina gehiago herriko igerilarientzat

Itsaso Tolosa eta Haitz Mitxelena Espainiako Gazteen txapelketan izan ziren eta taldeko txikiak berriz, Kutxa Sariko finaleran. Bi txapelketan emaitza paregabeak lortu zituzten.



Denboraldi txukuna osatzen ari da Ostadarren Erregional Goreneko taldea. Sanpedrotarrak-en aurka larunbat arratsaldean Michelingo berdegunean jokatuak partidu nagusitasunez irabazi ostean, mailaz igotzeko aukera mantentzen dute. Bestalde, Ostadarrek antolatzen duen herriko areto-futbol txapelketak aurrera darrai, eta bi jardunaldi besterik ez dira txapelketan aurrera egiteko sailkatuko diren lehen zortzi taldeak zein diren jakiteko.

Partidu erosoak jokatu zuen Ostadarrek larunbat arratsaldean Sanpedrotarren aurka 5-0eko emaitza garbia eskuratuz. Zortzi jardunaldiren faltan, Touring eta Ostadarren buruz buruko bat aurreikusten da lehen postua eskuratu eta bide batez automatikoki Ohorezko Erregional mailara salto egiteko.

Bigarren geratzen denak, zailago edukiko du igoera, joan-etorriko play-off bat jokatu beharko baitu Erregional Preferenteko B taldeko bigarrenaren aurka.

### Areto-futbol txapelketa

Bestalde, herriko areto futbol txapelketako Liga amaierara iristen ari da, eta geroz eta gutxiago falta da lehen zortzi postuetan zein talde sailkatuko diren jakiteko. Hauen arteik aterako dira maiatzaren 19an finala jokatu duten bi taldeen izenak, eta gainontzeko zortziek “Memorial

Erregioanal Preferenteko taldea bigarren postuan dago oraingoz, Touring liderrarengandik puntu bakarrera, eta igotzeko aukera gertu dute



Nagusitasunez irabazi zuen Ostadarrek norgehiagoka, Sanpedrotarra taldea 5-0eko emaitzarekin gailenduz.

Mosso” kontsolazio txapelketa jokatu beharko dute.

### Ostadarren partidu biribila

Norgehiagoka erdi-lo hasi bazuten ere, eta partiduaren erritmoa hartzea zertxobait kostatu bazitzairen ere, 1-0eko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira Ostadarreko mutilak, Aitor Maneroren gol bati esker.

Bigarren zatian berriz, jaun eta jabe izan zen herriko taldea, sanpedrotarrak jokalariei bat gutxiagorekin geratu baitziren 2. zatiko hamargarren minutuarako, eta horrek gauzak asko erraztu zizkion Ostadarri. Aitor Manero (bigarrenenez), Josu Arteaga, Iñigo Vila eta Hodei Perezen golek ezarri zuten 5-0eko emaitza partiduaren amaieran.



Herriko areto futbol txapelketak aurrera darrai, bi jardunaldiren faltan.



Txakur eta katuen denda

%20ko deskontua dendako produktu guztietan zure txakurra, apaindu edota garbitzera ekartzen baduzu



## Adituak dio

## Talaia tik



## Maite Higuero

Gizarte Zerbitzu etako  
Emakume arloko arduraduna

## Martxoaren 8a

Egun hau hala izendatu zutenean, emakumeon lan-baldintzak gaur egun goak baino askoz txarragoak ziren; hor ez dago zalantzarik. Lan-munduan emakumeon txertatzea etengabekoa izan da azken belaunaldietan. Nahiz eta oraindik desberdintasunak egon emakumeon eta gizonen artean, esan beharrekoa da, lan-baldintzei, alderdi juridikotik begiratuta (mende-baldeko herri gehienetan behintzat), emakumeon esku-bideak bermatuak daudela.

Hala ere, gaur egungo gakoa ez dago lan-munduko baldintza juridikoetan, baizik eta lan mundura sartzeko aukeretan; hau da, emakumeon eta gizonen arteko aukerak alderatuz, posibilitate bera daukagula ziurta dezakegu? Are gehiago, jasaten ari garen krisi ekonomikoa kontuan hartzen badugu. Alde horretatik, argi dago martxoaren 8ko aldarrikapena egokia dela eta oraindik ere beharrezkoa dela.

Urteak igaro ahala lan-munduan sartzeko emakumeoi onurak ekarri badizkigu ere, ondorio ez hain onak ere ekarri dizkigu. Aipatzearen, emakumeok lan-munduko aginteak eskuratu ditugu ardura eta atseginez, baina betiko etxeko ardurak ez ditugu ondo banatu familiaren kide guztien artean, eta horrek esan nahi du bai lane-ko eta bai etxeko betebeharrak gure gain jarraitzen dutela kasu gehienetan. Hori kontuan hartuz, beharrezkoa dirudi martxoaren 8ko eguna ospatzen jarraitzeak.

## Martxoaren 8a, hausnarketa eguna

Kalera atera nahi izan dugu lasarteoriatarren artean Martxoaren 8ko, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren ospakizuna beharrezko ikusten duten galdetzeko. Egia esan, mota askotako iritziak jaso baditugu ere, etxeko andreen artean dago hau ospatzeko behararen aldeko jarrerak. Hauen hitzetan etxean lan egiteagatik euren inguruan askotan sentitu dira bigarren maila batean eta arrazoi honengatik oraindik guttiz beharrezkoa da hauentzat aldarrikapen egun hau. Hauentzat beharrezkoa da herrian egun hau dela eta ekimen egitarau berezia antolatzen jarraitzea. Gehienek lagun artean bazkari, afari batekin elkartzeko asmoa dute gainera. Bestalde gizonen jarrera dago. Hauetako askok ez zuten gure galdera erantzun nahi izan agian latsa izango da edota garrantzia gutxi ematen diotela egu-

nari. Ikusita dago gizarte "garatueta" sexuen arteko normalkuntzarako prozesuan gurea nolabait baina oraindik bide asko dago egiteke zenbait esparrutan, adibide kirolaren mundua eta enpresarena. Zer esanik ez amatasuna eta lana bateratzeko oraindik egiteke daudenak. Gure zibilborretik haratago, egun hau nazioarteko izaki, begirada bat egin behar munduan zehar egoera eta gizarte hain ezberdinetan bizi diren emakumei. Aste honetan Zentro Zibikoak ikuspegi global honen inguruko eztabaida saioa izango du martxoaren 7an azken batean, hain ezberdinak al gara herrialde ezberdinetako emakumeak? Gizarte, erligio eta ingurune ekonomiko ezberdinetan bizi arren, ezberdintasunak berdintasunak baino gehiago al dira? Hausnarketa egiteko behintzat urtean behin parada izaten dugu.

## Hitz eta pitz

## Zer iruditzen zaizu Emakume Langilearen eguna ospatzea?



## Isabel Velez

Urtero Emakumearen Zentro Zibikoak antolatzen ditu Martxoaren 8a dela eta hainbat ekintza ezberdin eta gustatzen zait hauetan parte hartzea. Nik uste dut ondo dagoela egun hau bereziki ospatzea eta jarraitu behar dugu horretan. Ospakizun honen alde nago erabat eta oso ondo iruditzen zait udaletik ere egun hau ekintzekin sustatzea.



## Jexus Anabitarte

Berdin zait. Gizon asko entzun ditut egun honen edota emakumearen egunaren aitzakiarekin egiten diren ospakizunen kontra, baina ni ez naiz horretan sartzen. Garaiak aldatu dira eta ondo dago ere emakumeek bere aldetik egun hori izatea elkartzeko aitzaki. Orokorrean nire adinarekin halako ospakizunei garrantzia gutxi ematen diegula uste dut.



## MªCarmen Sevilla

Nik uste dut beharrezkoa dela oraindik emakume langilearen eguna ospatzea. Nahiz eta gure gizartearen gauzak aldatu diren, oraindik emakumea esparru askotan bigarren maila batean dagoela iruditzen zait eta ez luke horrela izan behar. Aurten ez dakit egitea izango dugun baina ahizpa eta lagunekin elkartu izan naiz egun hori nolabait ospatzeko.



## Antonia eta Gregoria

Beharrezkoa da oraindik izan ere, batez ere gure lana, etxeko andreena, ez da gizartearen behar bezala baloratzen. Oraindik gizonak baino gutxiago gurea ematen du eta pentsatzeko modu hori aldatu behar da. Urtero gustatzen zaigu herriko emakumeen Zentro Zibikoak antolatzen dituen ekintzetara joatea. Aurten ere antzerkia ikustera joateko asmoa dugu.

## Iruditan



Lasarte-Oriako familia bereko hiru belaunaldietako emakumeak Madrilgo bisitariekin. F.Galardi.

## Lasarte-Oriako emakume langileak

XX.mendearen hasierako irudia dugu, Arrietaenea etxearen baratzan, gaur Okendo plaza, agertzen dira familia bereko hiru belaunaldiak. Maria eta Felixi Iradi ahizpak eserita beltzez, Eustasia Arrieta zutik erdian aurreko bien ama eta ezkerrean, Maria Bautista Iturralde azken honen ama eta Iradi ahizpen amona. Beste biak Madrildik zaldi lasterketetara etorritako bisitariak dira. Eustasiak bere garaiko emakumeen antzera, etxeko lanak, baratz, familiaren arduratzeaz gain, herriko tabernaria ere bazen, ondoren Ostatu berri izenarekin ezagutu genuen tabernan hain zuzen.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako  
Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA**



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## EMAKUMEAK

# Egitarau oparoa Emakume langilearen eguna ospatzeko

Ekintza bereziak antolatu ditu udalak Zentro Zibikoarekin batera

**Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela eta hainbat ekimen antolatu ditu udalak. Asteazkenean hasita hitzaldi, antzerki edota zine emanaldia izango dira besteak beste ekintza horietako batzuk. Urtero legez, herritarrek hauetan parte hartzea animatu nahi ditu udalak.**

Urtero bezala Martxoaren 8a dela eta, ekimen bereziak antolatu dira herrian Emakumearen Zentro Zibikoarekin elkarlanean. Asteazkenean, Martxoaren 7an, 18:00etan "Emakumearen edertasuna nazioarte mailan" hitzaldia eskainiko du Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutak. Bertan, jorratuko den gaia izango da edertasuna eta kulturaren esanahia mundu mailan. Ondoren, gai honen inguruan eztabaidatzeko aukera zabalduko da eta saioari amaiera ona emateko, gorputz adierazpeneko ariketa batzuk egingo dira.

Ostegunean berriz, Martxoaren 8a izaki, aldarrikapenerako eguna izango da eta 20:00etan kontzentrazioa burutuko da udaletxeko ata-



lax Martxoaren 8a zela eta antolatutako hitzaldietako bat.

rian egun gertatzen diren gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak salatzen. Aurretik, 17:30ean Noemi Fernandez haur hezitzaileak ipuin kontaketa egingo du Lasarte-Oriako emakumeen taldearen laguntzarekin.

20:45tik 21:30era mokadu bat jateko aukera izango da kultur-etxeko kafetegian. Ekimena irekia izango da. Ostean, Okendo zinema taldeak ostegunero antolatzen duen zine emanaldiaren baitan, jai egun honekin bat egiteko, "La fuente de las mujeres" filma ikusi ahal

izango da 21:30etatik aurrera, sarrera 4,40 eurokoa izango da.

Ostiralean berriz, antzerki emanaldia izango da Manuel Lekuona kultur-etxean Lan eta Lan Beti Lan taldearen eskutik, "Las Siete vidas del gato". Sarrera online 3 eurotan eros daiteke dagoeneko. 21:30ean egitarau bereziari amaiera emanez, afari herrikoia egingo da Araeta jatetxean. Hone tan parte hartzea irekia da. Afariaren prezioa 25eurokoa izango da eta aurretik Emakumearen Zentro Zibikoan izen eman behar da.

## ZOKKETA

## AEK-ren saria 34.184 zenbakiarentzat

AEK-euskaltegiek antolatutako "urtebetez eta hilean 1.000" zozketa bereziaren zenbaki sariduna aurreko asteazkenean ONCERen zozketan ateratakoa izan zen 34.184. Honi egokitu zaio urtebetez hilero 1.000 euro jasotzearen saria. Hala ere, zenbakiaren jabea azalduko ez balitz, AEK-k jakitera eman duenez, apirilaren 3-an berriz ere ONCE-ren zenbakia izango litzateke saritua. Hori dela eta, ordura arte zenbakiak gortdeta edukitzea gomendatzen da.

## BERRIA

## Bilera Lasarte-Orian

Berrialaguna egiteko kanpaina hasi du BERRIA egunkariak herriz herri, eta euskalgintza eta kulturgintzako sektorez sektore. BERRIAren irakurleak eta zaleak ez ezik, euskaraz bizi-tzeko asmoa duen guztiongan iritsi nahi du.

Lasarte-Orian ere hori lortu nahian, datorren martxoaren 7an, asteazkenean Jalgi Kafe-antzekian egingo den bilerara gonbidatzen ditu interesatuak dauden herritarrek.

Egunkariko arduradunek azaldu dutenez, "herrian norengana eta nola iritsi gaitezkeen ikustea, lankide eta kontaktuak zein izan ditzakegun eta zer egin dezakegun pentsatzea da helburua".

## IKASTAROA

## Bitxigintzan trebatzeko aukera

Ttakunek antolatutako bitxigintza ikastaroa ostegunean hasiko da eta oraindik badago bertan izena emateko aukera. Birziklapena izango du ardatz bi orduko lau saiotan antolatutako bitxigintza ikastaro honek. Olga Blanco izango da irakaslea martxoko lau ostegunetan burutuko den tailerlean.

## IRTEERA

## Oinatz Sara eta Zugarramurdira

Oinatz taldeak hurrengo irteera Nafarroa eta Lapurdi aldera egingo du martxoaren 11n, besteak beste Sara eta Zugarramurdiko kobazuloak ezagutzera. Autobusez joango dira Zugarramurdira eta lehenengo, bertako kobazuloa ikusiko dute. Ondoren nahi dutenek Sarara oinez joateko aukera izango dute. Autobusa martxoaren 11n goizeko 9:00etan aterako da Jalgi aurretik. Autobus-txartelak 12 euro balio du, 10 euro ordainduko dituzte haurrek eta Ttakuneko bazkideek. Ttakuneko bulegoan daude salgai martxoaren 8ra bitartean.

# Kalitate handiko musika kontzertuak



Kalitate handiko bi kontzertuz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek ostiralean.

### Rosat eta Ruti hirukotea

Hirukote herritarren musika klasiko emanaldia izan zen Brigidatarren komentuan ostiral iluntzean, Carlos Rosat eta Tomas Ruti aita-semeen eskutik; hirurek Euskadiko Orkestran dihardute.

Giro goxoan eskainitako kontzertuan, flauta, klarinete

eta fagotaren doinuak entzuteko aukera izan zen.

Obra arteko tartetean, ostean zetorren lanaren xehetasunak eman zituzten, entzuleak obraren autorea, obra konpostazeko arrazoiak eta garaiko testuingurua hobeto uler zitzan.

### Amaieran, ezustekoa

Herriko hirukoteak Eneko Sota 11 urteko musikari hernaniarraren laguntza izan

zuen Vivaldiren azken obra jotzeko. Gaztetxoa izanagatik, abilezia handia erakutsi zuen behatzekin, akordeoiari doinu goxoak ateraz.

### Igelaren Banda

Bestalde, Jazz musika instrumental izan zen entzungai Jalgi kafe antzekian. Musika herrikoia ardatz hartuta, inprobisazio erakustaldia eman zuen hirukoteak, kalitate handiko "solo" harrigarriak eginez.

# Logo berria Kukukarentzat

Kukukak dagoeneko logo berria dauka. Zabaleta auzoan antzerki taldea lanean hasi zenetik hamar urte bete direla ospatzeko ikasturtean zehar ekintza eta ospakizun ugari antolatuko ditu. Horietako bat izan da logo berria aukeratzeko lehiaketa.

Guztira 23 parte hartzaile izan dira kanpoko zein herritarren lanean eta azkenean Azkoitiko Maite Urrutiak era-

man du 300euroko saria ikusi,O! lanari esker.

Gipuzkoangazte.info webaren bitartez izan zuen lehiaketaren berri eta logoa egiteko orduan begia, ikusi, ikuskizuna izan ditu ardatz. Elkarlana eta partaidetza irudikatzen koloretako zirkuluak erabili ditu eta muina hutsa, kukuaren zuloa. Mugimendua ematen dio bekaina antzeko irudiak.



Kukukako ordezkariak Junkal Perez, Estitxu Garmendia eta Kontxu Iartza Urrutiarekin.

# Kontzertua “Osasuna” Dominikar Errepublikara hedatzeko asmoarekin

► *"Osasuna guztiontzat" ikuskizunean, Alboka Abesbatzak, Bugedo eta San Sebastian abeslariak eta Biguri umoristak hartuko dute parte* ► *Haren Alde Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du datorren larunbatean 19:00etan*

"Haren Alde" izeneko GKE, Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta, larunbatean arratsaldeko 19:00etan musika emanaldi bat eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxean, Alboka abesbatzak, Elena Bugedo eta Joxerra San Sebastian abeslariak eta Kike Biguri Umoristak. Kontzertua sei euroren truke ikusi daiteke eta bildutako dirua GKEa Dominikar Errepublikan burutzen ari den proiektu batean erabiliko da nekazal inguru batean osasun azpiegiturak garatzeko.

Jon ALTUNA IZA

Helburu bikoitza izango du datorren larunbatean arratsaldeko 19:00etan Kultur etxean burutuko den kontzertuak, batetik Haren Alde elkarte eta munduan barrena burutzen dituen proiektuak ezagutaraztea, eta bestetik Errepublika Dominikarrean San Cristobal herrian martxan duen mediku-konsultategiaren zerbitzua bertako nekazal guneetara zabaltzeko dirua biltzea.

Haren Alde fraide agustin-darrek 1992an sortutako elkar-

teak hirugarren munduko 20 herrialde ezberdinetan egiten du lan. Donostiako egoitzan lan talde txikia da eta duela urte batzuk Brasilgo Marajo proiektuan lan egin zuten bi laguntzaile andoaindarrek, eta orain Dominikar Errepublikako San Cristobalgoan ari da, besteak beste Lasarte-Oriako David del Valle medikua.

2011ko otsaila eta martxoan Del Valle medikua eta Itsaso Gonzalez erizaina San Cristobalgo konsultategian izan ziren eta asmo berriak ekarri zituzten: “Maletak lan, gogo eta itxaropenez beteta eraman

nituen, eta han dituzten behar batzuei aurre egiteko mila ideia eta lagunez gainezka ekarri”.

## Las ugari

Konsultategia duela bi hamarkadatik martxan da, eta hilero batz besterik bi mila lagun atenditzen ditu. Baina, nekazal inguruan bizi direnak ez dute konsultategira joaterik, beraz horiei lagunduko dien taldea sortu nahi dute. ““Osasuna guztiontzat” proiektuaren helburua, herritar guztiek, landakoei zein kalekoek, kalitatezko osasun zerbitzua jasotzea da”.

Bestalde, Del Valle eta Gonzalez bikoteak, han emakume eta haurrekin ohikoak diren Giza Eskubideen urraketak ere landu zituzten, tailer eta hitzaldiak bidez. “Bidegabekeria horiek jasaten dituztenek ez dute legalki dagozkien eskubideen berri, ezta epaitegiatarako proiektu baliabiderik ere eta horri erantzuteko dohainik laguntza ematen dien Lege-Aholkularitza Bulegoa ireki zuten agustindarrek”.

Lasarte-Oriako Udalak kontzertua antolatzeko emandako bultzada eskertu du Del Valle, “batez ere gobernu taldeko politikarien eta Kultur etxeko teknikarien laguntza”.

Bi helburu nagusi ditu kontzertuak, batetik Haren Alde elkartearen ezagutaraztea, “garrantzitsua da lasarte-oriatarrek elkartearen eta burutzen dituen proiektuen berri izatea” eta bestetik San Cristobalgo proiektuaren finantzaketa, “gaur egun laguntza publikoak ezin dira eta diru-iturri bakarra izan”.

“Osasuna guztiontzat” emandakian, Alboka Abesbatzak, Bugedo eta San Sebastian abeslariak eta Biguri umoristak hartuko dute parte. Joxerra San Sebastian, Alboka eta Kike Biguri nahiko ezagunak dira Lasarte-Orian, ez ordea Elena Bugedo abeslaria. Granadako da, baina Donostian zenbat kontzertu eskainiak ditu. “Tu si que vales” telebistako saioan egin zen ezaguna, lehiaketako finalera iritsi baitzen Bugedo abeslariandaluziarra.



Emakume eta haurren aurkako urraketan gaia ere kontuan du Haren Alde elkarteak.



David Del Valle Medikua

## “Hemen kontrolpean dauden gaixotasunak eragina dute han”

Errepublika Dominikarrean izan zen 2011ko otsaila eta martxoan

*Fraide agustindarren Donostiako Santa Rita eskolan ikasi zuen David Del Valle mediku lasarteoriatarrak, horri esker ezagutu zuen Haren Alde Elkarte eta bere emazte Itxaso Gonzalez erizainarekin parte hartu du San Cristobal dominikar herrixkan burutzen duten proiektuan.*

Iaz Haren Alde elkartearekin burututako esperientzia oso aberatsa izan zela esan digu David Del Valle medikuak: “Erraztasun asko jarri zizkiguten beraiekin Dominikar Errepublikan lan egiteko. Bi hilabeterako gindoazen, 2011ko otsaila eta martxoan, eta jada martxan zegoen proiektu batean txertatu ginen, San Cristobalgo Konsultategian, eta horrela bertan dagoen medikuak beste iharduera batzuk egin al izan zituen, Itxaso erizainarekin batera. Iluntzean, nekazal inguruetara joaten ginen gero gazteei osa-

sunari eta sexu-transmisio gaixotasunei buruzko hitzaldiak ematera, edo genero bortizkeriari buruzko tailerrak egitera”.

**Berriro joateko asmoa duze nekazal inguru horietara, ezta?** Nekazal inguruan bizi direnak ez dute osasun zerbitzurik, San Cristobal herrira jaisteko mediorik ez dutelako. Garraio publikorik ez dago edo egunak beharko litzukete, beraz, helburua nekazal inguru horietara joango diren ekipoak sortzea da. Beti ere, herriko mediku konsultategiak duen filosofia berberarekin, hau da, bertako

jendearekin. Haren Alde GKEk lagunduta, hemengo medikuek hangoak trebatzen eta prestatzen dituzte horrela gerora beraiek antolatzeko modua izan dezaten.

**Osasuna guztiontzat egitasmoa agustindar nafar batek sortu zuen, ezta?**

Bai Miguel Angel Ziaurritz-ek, berak zuzentzen du zentroa, aspalditik dago eta han. Beharrik handienak osasun arloan zirela ikusi zuten eta konsultategia ireki. Osasun publikoa han oso kaskarra da, bakarrik larrialdietan eta huskeria.

**Dauden beharren artean bat nabarmenduko al zenuke?**

Oro har denak, baina hemen jada kontrolpean dauden oinarritzko gaixotasunak, esaterako sexuaren bidez transmititzen direnak, bihotzeko

arazoak, diabetekak, tentsioak,... eragin handia dute han. Ez dira arazo konplexuak, baina ez dute baliabiderik, eta ni han nengoela gainezka egiten genuen.

Oinarritzko botikak batzuek badira, baina guk antibiotikorik ez baldin bagenuen, oso garestia zen. Beraz, geneukanarekin aritu ginen lanean, baina sarri ez zen nahikoa.

**Gogorra egingo zitzaizuen horrela lan egitea...**

Bai, gainera non bizi ginen bazekitenez, goizeko seiatarako etxeko atean genituen.

**Berriro joateko datarik ba al duze?**

Zer egin begira ari gara. Proiektu handia da, baina lehen fasean dago. Aurten joan nahi dugu, baina hango eta hemen-egoera kontutan izan behar

da oro har. Proiektu batzuen finantzaketa bera ere beste garai batean errazagoa izango litzateke,

GKE asko dago eta zabal-kunde handia duten elkarteak bakarrik jasotzen dute diru publikoa. Aukera gutxi dituzte gurea bezalako elkarte txikiak.

Horregatik esaterako Udaltara jotzean, dirua baino laguntza eskatzen diegu, eta Lasarte-Orian oso ondo eran-

tzun digute, Kultur etxea eskainiz nahi genuena antolatzeko.

**Zer esango zenieke Lasarte-oriatarrei?**

Badakitela zertarako den kontzertua, bertako talde eta kantaria arituko direla, Haren alde zer den eta zein proiektu garatzen ari garen ere azaldu nahi diegula eta beraz larunbatean ahal badute kontzertura joan daitezela.

Joxerra San Sebastian Kantari eta dendaria

## “Kantari lasarte-orientarra naiz”

Lasarte bertsolariaren omenezko abestia kantatuko du larunbatean

*Duela 24 urte hasi zen Joxerra San Sebastian oriotarra Goxogin saltzaile eta jada “Lasarte-Oriotarra” dela aldarrikatzen du. Kantuan aritu da abesbatza, txaranga, folk talde, erromeria eta ezkontzetan, baina bere gitarrarekin berak bakarrik, sekula. Larunbatean kantatuko du lehen aldiz kultur etxean “Osasuna guztiontzat” kontzertuan. Bere abestiak prestatu ditu, bat Manuel Lasarte bertsolari hil berriari eskainia.*

Joxerra San Sebastian abeslariak ez du jende aurrean azken urteotan kantatu, baina gogotsu dago datorren larunbateko kontzertuan kantatzeko. “Bai, urte asko dira dena utzi nuenetik, eta nitaz gogoratzea pozgarria da. Gainera beti taldetan jo dut, bakarrik behin ere ez. Berrogei eta piko urterekin, lehen aldiz kantatuko ditut nire kantuak nire gitarrarekin bakarrik.

**Aspaldian ez zara oholza gainera igo?** Ez bixkiak izan nituen, eta horrek dena aldatu zuen, dena utzi nuen.

**Zure abestiak kantatuko dituzu?** Bai eta sorpresatxoren bat ere izango da, baina ia abesti guztiak nireak dira.

**Zenbat izango dira?**

Sei bat kanta eta doinuren bat gitarra eta armonikarekin. Ez da komeni gehiegi izatea ere batera hiru-lau taldek kontzertu egin dugu eta. Gehiegi luzatuko da bestela. Esaten dute ona bada gutxi hobe. Gehiago nahi badute deituko didate berriro eta moldatuko nuke beste zerbait. Abesti gehiago badauzkat.

**Aspaldi aritzen zinen kantari...**

Urte asko daramat jotzen. Gauza ezberdinak egin ditut: abesbatza batean hasi nintzen txikitari, gero txaranga batean jo nuen, folk taldetan ere bai, ezagunena Txanbela, orduan bi disko grabatu genituen, Erra-

mun Martikorenarekin ere aritu nintzen kantari, gero erromeriatan Martin trikitilariarekin eta Joseba Iparragirrearekin... Azkenean ezkontzetan jotzen bukatu nuen, zortzi urte pasa nituen Leitzaran taldearekin Martin Berasategiren jatetxean jotzen. Duela sei-zazpi urte utzi nuen edo gehiago, jada ez naiz gogoratu ere egiten.

**Lagunartean kantatuko duzu...**

Bai, baina eskenatokian ez. Xumela taldearekin hasi naiz orain, pixkanaka, gitarra doinuak, kantu zaharrak... berreskuratzu.

Aurreko astean, nire kanta bat kantatu nien Xumelakoei eta gustatu zitzaion. Manuel Lasarteri omenaldi bat da, kasualitatez duela hilabete hil den bertsolariari aspaldi egin nion. Horrela tokatu da eta kantatuko dut larunbatean.

**Nolatan sortu da larunbateko saioa?**

Garbi ez dakit, lagun batek deitu zidan kontzertua egin behar zutela dirua biltzeko eta baiezkoa eman nion. Nola esango diot ezetz horrelako gauza bati!

**Noiztik zabilta Xumelan?**

Uda ondoren, aurtengo ikasturtean hasi nintzen. Jende asko dabil, baina ez dago joateko obligaziorik. Garbi eduki behar da hara joan behar dela ondo pasatzera. Kantatzera eta disfrutatzen. Niri gitarra jotzea gustatzen zait eta jende askorekin jotzea ere bai. Beraz nik



Joxerra San Sebastianek bakarrik kantatuko du bere gitarraren laguntzarekin.

gozatzen dut eta aldi berean, besteak ere berdin gozatzea espero dut. Animatuko nituzke gainera herritarrak, astelehenero elkartzen gara eta nahi duenak atea zabalik du. Zenbat eta jende gehiago askoz ere hobe.

**Disko bat grabatu zenuen duela bost urte...**

Bai, egin nuen, polita zen baina ez zen zabaldu. Nola saldu behar da hori? ez neukan babeslerik, ez talderik, ez prestatzeko denborarik...

**Haurrak koxkortzean agian beste saltsaren batean hasiko al zara?**

Oraingoz gustura nago nagoen

bezala. Eskainiko balidate, bai, baina ni ez naiz bila joango. Garbi daukat oraintxe musika lasai egoteko, gustura egoteko eta ondo pasatzeko gauza bat dela niretzat.

Norbaitek horrelako zerbitutarako deitzen badit, ondo, ez diot, hala ere, denari baiezkoa esango, nire lana daukat eta. Dendak asko mugatzen nau, musika kontuak asteburutan izaten dira eta nire lana ere bai.

**Oriotarra zara, zenbat urte Lasarte-Orian?**

Goxogi okindegian orain dela 24 urte hasi nintzen, beraz jada hemengoa naiz, “lasarte-orientarra”.

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomoa ontzufua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateia



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

## ATLETISMOA..

## IGERIKETA..

Itoitz Rodriguezek  
Euskadiko marka  
hautsi zuen

LOKEko atletak fin dabilta. Lehengo larunbatean, otsailaren 25ean, Itoitz Rodriguez gazteak kadete mailako 600 metro lasterketako Euskadiko marka hobetu zuen.

LOKEko lau atleta, Itoitz Rodriguez, Ane Galardi, Ene-ritz Busto eta Maria Eugi martxoaren erdialdean Ovie-don izango den kadete mailako Espainiako txapelketa prestatzen ari dira.

Donostiako belodromoan egin ziren proba libreetan haien prestakuntza nola doan ikusteko aukera izan zuten Itoitzek bere onena eman eta marka berri egin zuen, 1m. 26s. 19 ehuneko.

Era honetara, Euskadiko marka 1s. 42 ehunekoan eta bere marka 3 segundutan jaitsi zuen LOKEko gazteak.



## Igerilariak domina eta markak metatzen

■ Itsaso Tolosak brontzezko domina eskuratu zuen Espainiako Gazteen Neguko txapelketan ■ Gaztetxoek bi domin lortu zituzten Kutxa Sariko finaletan

**Buruntzaldea IKT-ko gazteek lehengo asteburuan bi txapelketa garrantzitsu izan zituzten. Itsaso Tolosa eta Hartz Mitxelena Espainiako Gazteen txapelketan izan ziren eta taldeko txikiak Kutxa Sariko finaletan izan ziren. Bi txapelketetan emaitza paregabeak lortu zituzten.**

## Nerea EIZAGIRRE

**B**uruntzaldea IKT-k hiru domina berri lortu zituen otsailaren 25 eta 26ko asteburuan antolatutako Espainiako Gazteen Neguko txapelketan eta Kutxa Sariko finaletan.

Itsaso Tolosa eta Hartz Mitxelena Pontevedran izan ziren estatuko txapelketan.

Itsasok 200 m. bizkar proban brontzezko domina lortu zuen, 2'25"95 denborarekin.

Larunbatean, kanporaketan abixua eman zuen bere marka 6 segundutan jaitsi baitzuen.

Honela, Udaberriko Espainiako Open txapelketan eta senior mailako Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka du. "Opena Espainia mailan txapelketa garrantzitsuena dela esan daiteke," azaldu digu Borja

Apeztegia entrenatzaileak.

Baina ez zen hau Itsasok egindako proba bakarra izan, 100 m. bizkar proban bere marka 3 segundutan hobetu zuen eta 7. sailkatu baitzen.

Bestalde, Hartz Mitxelenak 200 m. tximeleta proban bere marka bi segundu eta erdian hobetu zuen.

## Kutxa Saría

Taldeko alebin eta infantilek Kutxa Sariko finalak izan zituzten Irunen. Hauetan, zilarrezko eta brontzezko domina bana lortu zituzten gaztetxoek. Buruntzaldeako entrenatzailearen hitzetan, "lan txukuna egin zuten".

A finaletan, Ainara Garcia 50 m. bular proban bigarren postuan amaitu eta bere marka hobetu zuen.

Eta Nahia Jie Villamediana 50 m. bizkar probako



Itsaso Tolosa Espainiako gazteen txapelketako podiumean izan zen. BURUNTZALDEA IKT

brontzezko domina eskuratu zuen.

"Emaitza ona, batez ere bere aurretik geratu ziren biak bera baino urte bat zaharra-goak direla kontuan izanda," aipatu digu Apeztegiak.

Domina eskuratu ezin den B finaletan, berriz, Jone Vazquez 50 m. tximeleta proban eta Leire Carcedo 50 m. bular proban haien markak hobetu zituzten.

50 m. libre proban, Maialen Casadok bere seriean

hirugarren postuan amaitu zuen eta Janire Berasarte laugarren, bere marka hobetuz. Proba honetako infantilen mailan, Naiara Lizaso izan zen lehena.

Erreleboetan ere izan ziren Buruntzaldeko taldeak. A finaletan 4x50ean errelebo mistoak 7. postua eskuratu zuen eta Nahia Jie lehengo postan marka pertsonala jaitsi zuen. B finaletan, aldiz, infantil mailako taldeak hirugarren postuan amaitu zuen lehia.

## OHARRAK..

## Squash txapelketako izena ematea

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak beste urte batez XXIV. Squash txapelketa soziala antolatu du. Lehia 2012ko martxoaren 19an hasiko da eta Kiroldegiko squash pistetan norgehiagoka desberdinak ikusi ahalgo dira ekainera arte.

Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko adina 14 urte da. Herriarrek martxoaren 9ra arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioarekin batera Buruntzaldeako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

## Buruntz Azpik ehiza txapelketa atzeratu du

Buruntz-Azpi elkarteko ehiza txapelketaren data aldatu da. Elkartek jakin arazi digunez, martxoaren 11an, igandean izango da lehiaketa Buruntza mendiko magaletan.

Zakurrekin egiten den ehiza txikiko lehiaketa txapelketa da eta elkarteko bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren martxoaren 8a ostegunera bitartean.

## Aste Santuan kirola eta jokoak

Lehen urtez Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak Aste Santuan kirol eta joko ekintzak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Apirilaren 2tik 13ra kirol eta jolas desberdinak egingo dituzte, 9:30ak 12:30ak bitartean. Buruntzaldeako ibilbideetan zehar ere irteera bat egingo dute.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute. Izena ematea martxoaren 5ean irekiko da. Matrikula egin edo informazio gehiago eskuratzeko kiroldegiko bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

## MENDIA..

Iraupen eskiari buruzko proiektzioa  
Manuel Lekuona kultur-etxean

**O**stadar SKT-ko mendi sailak iraupen eskiari buruzko proiektzioa antolatu du astezkenean, martxoaren 7an, 19:30ean Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretoan.

Honetan Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizak "Baso txuriaren babesean" proiektzioa aurkeztuko dute. "Biek iraupen eskia egiten dute. Aralarren hasi ziren eta Euskal Herrian, zein mundu hainbat txokotan izan dira haien zaletasunaz gozatu ahal izateko, Argentina, Txile, Estatu Batuak..." adierazi digute saileko kideek.

"Iraupen eskiko proba ugari egiten dituzte, baina irabaztea ez da haien helburua. Esate baterako, Finlandian eta Eslovenian etapetako probak egin dituzte," aipatu digute.

## Blog berria

Bestalde, saileko arduradunek



P. Gorrotxategi eta B. Eguzkiza Ostadar SKT-ko lagunekin Aralarrean egindako irteeran.

jakin arazi dute blog berria jarri dutela martxan, *ostadarremendian.blogspot.com*. "Honetara helbide honetatik edo Ostadar SKT-ko web orrialdetik sartu daitezke herritarrek," azaldu digute.

Honetan taldeak urtean zehar antolatuko dituzten eki-

men desberdinei buruzko informazioa dagoela adierazi digute, hala nola, irteera, ikastaro edo proiektzioak.

Era berean, taldeko kideek egindako bidai edo txangoei buruzko kronika eta argazkiak ere aurkituko dituzte mendizaleek.

— Agenda —

Osteguna 8, Manuel Lekuona kultur-etxea, 21:30ean



Emakumeen iraultza txikia

Okendo Zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da, emakume langilearen nazioarteko egunean. Islamiar herrixka batean, emakumeak uraren bila doaz iturrira. Bertan herriko kontu eta txutxumutxuei buruz hitz egiten dute eta iraultza txiki bat prestatzen dute: ez dute haien senarrerekin sexurik izango gizonezkoek ura haien etxeetara eramaten ez duten bitartean. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

gauean. Sarrera, aurretik 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Ostirala 9, 19:30ean

Nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko, Lan eta Lan Beti Lan taldeko kideek "Las siete vidas del gato" antzeziana eskainiko dute. Gaztelaniaz. Sarrea online, 3 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Ostirala 16, 22:30ean  
Ion Martinez eta Saioa Royok "Ispilua" antzeziana eskainiko dute. Euskaraz.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Larunbata 10, 19:00etan

Haren Alde Gobernu Kanpoko Era-kundeak antolatutako ekitaldia. Albo-ka abesbatza, Jose Ramon San Sebastian, Kike Biguri eta Elena Buge-do izango dira bertan. Sarrera, 6 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.



Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Igandea 11, 17:00etan  
Haurrentzako zinearen barruan, "El gato con botas" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.  
Igandea 11, 19:00etan  
Okendo Zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da helduentzako zinema atalean. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Osteguna 15, 21:30ean  
Okendo Zinema taldearen eskutik, Pedro Almodovar zuzendariaren "La piel que habito" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Igandea 18, 17:00etan  
Haurrentzako zinearen barruan, "El Cascanueces" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.  
Igandea 18, 19:00etan  
Okendo zinema taldearen eskutik, "La piel que habito" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,40 euro.

Bideo emanaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Astelehena 5, 19:00etan  
"Llach: La revolta permanent" dokumentala eskainiko da. FAL eta CNT-k antolatutako saioa da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN  
Asteazkena 7, 19:30ean  
Ostadar SKT-ko mendi sailak antolatu-

ta, Potxo Gorrotxategi eta Belen Eguzkizaren "Baso txuriaren babesean" proiektzioa eskainiko dute. Iraupen eskiari buruzko lana da.

Musika

SIGLO 20  
Larunbata 10, 20:00etan  
Zepequeño&Pelayo hip hop Live! taldearen hip hop emanaldia, Kultur kale egitasmoaren barruan.  
Larunbata 10, 23:00etan  
DJ KA eta DJ SET-en saioak entzun eta dantzatzeko aukera, Kultur kale egitasmoaren barruan.

ABEND KAFE-ANTZOKIAN  
Ostirala 16, 23:45ean  
"Las culebras" eta "Kalean" taldeen doinuak entzun ahal izango dira Rock

— Herritarren txokoa —

**AEK-ren saria**  
AEK-euskaltegiek antolatutako "urtebetetz eta hilean 1.000" zozketa bereziaren zenbaki sariduna asteazkenean ONCeren zozketan ateratakoa izan zen 34.184.  
Honi egokitu zaio urtebetetz hilero 1.000 euro jasotzearen saria. Hala ere, zenbakiaren jabea azalduko ez balitz, AEK-k jakitera eman duenez, apirilaren 3-an berriz ere ONCE-ren zenbakia izango litzateke saritua. Hori dela eta, ordura arte zenbakiak gortdeta edukitzea gomendatzen da.

**Marrazki eta pintura klaseak**  
Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

**Galdutako gauzak**  
Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, urrezko pultsera, urrezko belarritakoa, neskaren esku-muturreko bat, hiru betaurreko gra-

duatu, bizikleta bat, bi telefono mugikor eta zamarra beltz bat.  
Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.  
Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Iradokizunak edo kexak Udalari**  
Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizunak, kexak edo eskaerak egiteko orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.  
Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbidera bidali behar da orrialdea.

**Hirigintzako departamentua Ganbo kalean**  
Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

— Hemeroteka —

Duela 1003 ale

Familia eta Gizarte-heziketarako zentruako zuzendari zen Marisa Martini elkarrizketa egin zitzaion. Bertan, zentruaren sorrera eta bilakaerari buruz hitz egiten duen arduradunak.  
1974. urtean Lasarte-Orian sortu zen zentrua "emakumearen egoera soziala hobetzeko asmatan". Emakumea zen zentruaren ardatza eta Marisak elkarrizketan onartzen duenez, "elkartzeko tokia, kezak konpartitzeko leku izan zen hasieratik".

Honetan, lan munduko prestakuntza eta heziketa kulturala eskaintzen zitzairen herriko emakumei eta arlo sozio-kulturallean ekintza desberdinak garatzen zituen, hala nola, dantza ikastaroak, marrazkia, sukaldaritza... Gainera, elkarrizketan aitortzen duenez, 200 pertsona baino gehiago zeuden izena emanda zentruan, baina horietako ehuneko txikia zen herriko jendearena.

Honetaz gain, lanean jardun zen urteetan gizartearen bilakaerarekin bat zentruak beste arazo batzuei irtenbidea ematen ziela ere jakitera eman zuen elkarrizketan, beti ere, helburuari uko egin gabe. "Zentruaren lan eremua zabaldu egin da. [...]Gazte eta umeekin ere lanean hasi ginen. Nolabait, lan prebentiboa egin dugu: eskola frakasoari aurre egin, gazteei orientabideak eman... Aurten ere, langabezia dauden gazteen-tzako programa berri bat eratu dugu".



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Agustin Arruabarrena Informatika fakultateko dekanoa eta irakaslea

# “Abiadura handienaz aldatzen den teknologia da informatika”

Irakasle lasarteoriatarren iritziz eragin nabarmena du eguneroko bizitzan, baina duela urte batzuek ikasle gehiagok egiten zituen goi mailako informatika ikasketak

**Lanpetuta harrapatu dugu Agustin Arruabarrena Informatika irakasle eta Donostiako fakultateko dekanoa, 2012-2013 ikasturtea prestatzen. 28 urte daramatza irakasle eta ondo ezagutzen ditu teknologia berrien bilakaera eta gaur egun duten garrantzia. Dena den, orain dela urte batzuk baino ikasle gutxiagok egiten ditu informatikako goi ikasketak.**

Jon ALTUNA IZA

**D**onostian jaio bazen ere Lasarte-Orian bizi da zazpi urte zituenetik Agustin Arruabarrena. Hala ere denbora asko pasatzen du Donostiako informatikako fakultatean, bertako irakasle eta dekanoa baita. Informatika eta teknologia berrietaz aritu gara berarekin.

**Txipez inguraturik gaude, informatikaren dependentzia handia al daukagu gaur egungo bizitzan?**

Ez dakit dependentzia hitz egokia den, baina eguneroko bizitzan eragin nabarmen eta argia du.

**Ikasteko zaila al da?**

Ez pentsa, ez dakizunean dena da ikasteko zaila. Bi gauza daude hor, bata erabilera, informatika egunero erabiltzen dugu askotan jakin gabe: garbigailu, auto, aisialdi tresna, telefono,... Erabiltzaile gisara ez da zaila. Gero beste kontu bat da teknologia guzti hori sortzea eta garatzea, aplikazioak asmatzea,...

**Tresna horiek etengabe ari al dira berritzen?**

Informatikak zerbait badu, hori da: historian zehar abiadura handienaz aldatzen ari den teknologia da. Beste teknologiak informatika eboluzionatzen ari den bezala eboluzionatuko baldin balira, auskalo zer nolako ibilgailuak erabiliko genituzkeen.

Abantaila eta desabantaila handia da hori. Badakizu ikasten duzunak idatzita daukala bukaera epea.

Teknologia berria da, 50 urteko kontua, asko aldatzen ari da, baina ez da zerotik abiatuta eraikitzen, hondar bat ere uzten du.

Ikasleei beti kontatzen diegu: zuek lan egin beharko duzue orain existitzen ez den eremu batean. Horretarako prestatzen ditugu.

**Fakultatean bultzatzen al da gauza berrien asmakizuna, sormena, kreatibitatea...**

Oro har ingeniari-tza guztien eta batez ere informatikaren, ezau-garri da sortzeko dagoen eremu bat dela, uneoro sortzen ari dira gauza berriak, eta beraz kreatibitatea lantzeko eremu ikaragarri ederra da.

Aurkezpenetan esaten dugu, matematiketan ondo dabil-tzan ikasleak informatikan ere ondo ibiliko direla, eremu oso antzekoak direlako, eta sormenean ondo dabil-tzanak ere bai. Baina hau ez da batxile-rean matematika bezala irakasten.

**Gauza berriak sortzeko eta egiteko gogotsu izaten al dira ikasleak?**

Denetarik dago, dena den, ika-ragarritzko jaitziera egon da oro har ikasle kopuruan. Mugak jarri behar izan ziren lehenengo mailan 600 eta piku ikasle izan zirenean eta gaur egun 100 ikasle baino ez ditugu.

**Zergatik gertatu da hori?**

Zaila da esateko eta segur aski arrazoi bat baino gehiago izango dira. Baina bi gauza egon badaude: bata, momentu batean booma gertatu zela, eta bestea, hau ere nabarmena, profesionalki informatikan aritzea ez dagoela erregulatua, eta horrek esan nahi du edozeinek egin deza-keela. Gainera, soldatak ere ez dira oso onak izan.

Europa osoan gertatu da jai-

tsiera. Alemaniatik ikasle bila etortzen dira hara lanera eramateko. Hemen ere laster nabaritu-ko da falta, hurrengo urtetan ikasle gutxiago aterako ditugu eta.

**Horrek zer esan nahi du, lana izango dutela ikasleek?**

Unibertsitateko tauletan goi goian gaude; soldatan ez, erdi mailan-edo, baina lana aurkitzeko arazorik ez da. Beste kontu bat izango da zer lan mota den.

Askotan ikusten da kontratatu eta Lanbide Hezkuntza egin duen pertsona batek egiteko moduko lanak egiten dituz-tela. Enpresek ikasi behar dute zerbait gehiagorako erabili dai-tezkeela.

**Bolonia sistema jarri zenetik Unibertsitateak ez al dio enpre-sen behar eta eskaerei gehiegi begiratzen?**

Hau bolo-bolo zabaldu da, baina, batetik teknologiarekin oso lotuta gaudenez, beti izan dugu enpresari begira lan egi-tearen perfila. Baina berez

Boloniarena oso gauza ulerga-rria zen bere jatorrian. Europa-rekin adostea hemengoak han balio duela eta alderantziz.

Bestalde, gehiago nabaritu dute hori hain teknologikoak ez diren arloetan. Gure kasuan ira-kaskuntza metodoen aldaketa nabaritzen da, aitzindariak gara horretan EHUko teknologia arloan, proiektuetan oinarrituta-ko irakaskuntza deitzen da. Enpresei begira lan egiten al dugun? Bai. Enpresek kontrola-tuta? Ez.

**Informatikako fakultateko deka-noa zara, karrera zaila al da?**

Egia esanda, karrera zaila da batez ere datorren ikasle profi-larengatik. Ingeniaritza bat da, ezagutza maila hori eskatzen du, gurean oso lotuta oinarri matematikoarekin. Matemati-kean ondo dabilenak duen pentsatzeko era hori da garran-tzitsua.

**Zenbatek bukatzen dute?**

Zera gertatzen da, ikasleen jai-tsiera handia izan denez, nahi duen oro matrikulatzen dela, horietako asko eta asko irai-lean. Ez dut esango horientzat ezinezkoa denik, baina eskaera handiko ikasketak dira eta erdiak baino ez du amaitzen karrera. Orain lau urtera jait-si da graduatzea, baina orain gutxi arte bost urtekoa zen eta bukatzeko batz besteko denbora sei urtetik gorakoa izan da.

**Zenbat ikasle dira?**

1.600 ikasletik gora izan dira, baina une honetan 500-600.

**Euskaraz irakasten da informati-ka aspalditik, ezta?**

Bai, aitzindariak gara. Hoge-i urte baino gehiago daramagu eta irakasle euskaldunak fakul-tatean erdiak baino gehiago gara. Eskaintza bi hizkuntzatan da eta ingelesa ere ari gara sar-tzen.

**UEUrekin hartuemanik ba al duzue?**

Asko gara UEUko kide. Gaur egun informatika saila hobekien dabilenetariko bat da.

**Hiztegia egin zenuten?**

Bai, hizkuntzaren inguruan lan handia egin da, eta bereziki euskarak eragin handia izan du gure fakultatean. Jende asko izan da konprometitua.

**Krisiaren konponbidea teknolo-gia berriek ekarriko al dute?**

Jakingo banu! Merkatu librean produktu bat lehiakorra izate-ko, teknologia berriekin egin beharko da, zalantzarik gabe. Baina gauza asko izan behar dira kontuan, produktuak askoz merkeago egiten dizkizute Txin-an esaterako, eta lehen pro-gramatzaileak hemengoak baziren ere, gaur egun, kodeak Indian sortzen dira. Hor daude pantailaren bestaldean eta lan hori askoz ere merkeago egi-ten dute.

Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

**Aitzindariak gara, hoge-i urte baino gehiago daramagu informatika euskaraz irakasten. Irakasle euskaldunak, erdiak baino gehiago gara fakultatean.**

